

## DEIALDIA

### Udal lantaldeko behargin baten ordezkoa hartzeko

Udalak behargin bat behar du udal lantaldeko langile baten ordezkotza betetzeko haren txandako lan-kontratuak diraun bitartean. Hartuko den beharginaren kontratua lan-zuzenbidezko erregimenean egingo da. Ordutegia eta eginbeharrak, berriz, lantaldeko gainerako beharginenak.

### BALDINTZAK

- **Instalazio elektriko**etan erdi mailako lanbide heziketako titulua edo baliokidea izatea.
- Udal lantaldearen erremintak, tresnak eta makinak erabiltzen jakitea (lanean, bertatik bertara, egiaztatuko dena).
- Oinarrizko (B) gidabaimenaren jabe izatea.

### BALORATUKO DIRENAK (Udalak bere bitartekoez egiaztatuta):

- Esperientzia: udal lantaldeak propio dituen lanetan, eta elektrizista beharretan.
- Euskara: ahozko mailan (ulertu eta berbetan jakitea).
- C<sub>1</sub> gidabaimenaren jabe izatea.

### IZENA EMAN ETA DOKUMENTAZIOA EKARTZEA:

**Epea:** abenduaren 11an amaituko da (berori barne).

**Non:** Udaletxeko harrera-lekuan.

Markina-Xemeinen, bi mila eta hamazazpiko azaroaren hogeita batean.

Alkatea,  
Juan Jose Txurruka Txurruka

